

Gure nominan %2,5eko igoera jasota dago

Gure nominaren kontzeptuak lau multzotan bil ditzakegu hobeto ulertzeko:

- A. Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B. Antzinasunaren arabekoak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C. Karguenak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D. Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

Kontuan eduki antzinasunean **lehenengo** hirurtekoa idatziz eskatu behar dela.

Sortzapenak

Jaso behar duguna (eurotan eta hilabetero)				
Kodeak eta kontzeptuak	Maisu-maistrak	LH-ko irak. teknikoak	BH/HEOko irak.	Katedradunak
1000 Soldata		1.020,28		1.179,96
1020 Antzinasuna (hirurtekoak)		37,03		45,41
1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak)		7,75		8,86
2004 Destino Osagarria	596,42		748,56	921,31
2103 Berariazko Osagarria	599,04	793,22	678,19	823,79
2108 CE Kapitalizazioa	269,40 (denok kobratzen dugu)			
2130 CE 1 ^{er} grado esp. Ded.	82,33 (6 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2135 CE 4 ^o grado esp. Ded.	49,11 (24 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2140 CE 5 ^o grado esp. Ded.	40,71 (30 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2145 CE Adic. Cargo-Tutorea		60,68		
2145 CE Adic. Cargo-Koord	55,14			
2145 CE Adic. Cargo-Mintegib.	55,28	54,68		79,23
2145 CE Adic. C. Zuzendaritza	(Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera)			
2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH	152,14			
2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA	68,18			

Azalpenak GSKo kotizazioa-oinarrien atalean.

Siglak: **LI** Lan Istripua **LG** Lanbide Gaixotasuna **AT** Accidente laboral **EP** Enfermedad Profesional

Atxikipenak: deskontatzen digutena:

Denok: **401 P.F.E.Z. (IRPF)-aren gaineko atxikipena:** Sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoa igotzeko eska dezake.

GS-koak: **350 Trab. cont. comunes:** erretiro eta osasun asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen %4,7.
370 Trab. desempleo (bakarrik bitarteko funtzionarioak): Sarrera gordinen %1,55.
380 Trab. formac. profesional: Sarrera gordinen %0,1.

MUFACEkoak: **9360 ESKUBIDE PASIBOAK:** erretirorako kotizazioa.

9350 MUFACE: osasun asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

Aparteko ordainsarrietan (ekainean eta abenduan):

- Oinarrizko aldea (1027) ez dugu kobratzen.
- Oinarrizko soldata (1000) eta hirurtekoen (1020) %72 (A1 taldean) eta %61 (A2an) jasotzen dugu.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.